



BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA

BOLETIN OFICIAL DE BIZKAIA

BAO. 74. zk. 2015, apirilak 21. Asteartea

— 8963 —

BOB núm. 74. Martes, 21 de abril de 2015

Laburpena / Sumario

I. Atala / Sección I

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa / Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

Foru Aldundia / Diputación Foral

Kultura Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 57/2015 FORU DEKRETUA, apirilaren 14koa, 2014-2015 denboraldian Bizkaiko Eskola Kirola programaren barruan sartuta dauden lehiatzeko kirol jardueretan eta/edo Heziki hezkuntza-jardueran parte hartzen duten erakundeentzako diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dituena. Jarduera horiek Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 29ko 97/2014 Foru Dekretuak arautu ditu.

Kulturako foru diputatuaren 1255/2015 FORU AGINDUA, apirilaren 15koa. Honen bidez, 2015eko ekitaldian euskararen erabilera sustatzeko planak burutzen dituzten merkataritza-sozietateei, kooperatiba-sozietateei, banakako enpresaburuei eta profesionalei zuzenduriko diru-laguntzen deialdia arautzen duen abenduaren 9ko 151/2014 (2014ko abenduaren 15eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 239. zkia) Foru Dekretuaren arabera aurkeztutako diru-laguntza eskabideak ebazten dira.

Nekazaritza Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 54/2015 FORU DEKRETUA, apirilaren 14koa. Honen bidez, zenbait laguntzaren 2015erako aurrekontuko diru-izendapenak ezartzen dira, hain zuzen, Bizkaiko landa-eremuen garapenerako diru-laguntzen oinarri arautzaileak ezartzen dituen apirilaren 15eko 50/2014 Foru Dekretuaren babesean ematen diren laguntzei dagozkienak, eta, horrez gainera, deialdiaren epeak zehazten dira, eta foru dekretu horren alderdi batzuk aldatzen dira.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 55/2015 FORU DEKRETUA, apirilaren 14koa. Honen bidez, zenbait laguntzaren 2015erako aurrekontuko diru-izendapenak ezartzen dira, hain zuzen, Bizkaiko Lurralde Historikoko landa-garapenerako elkarteentzako laguntzen oinarri arautzaileei eta deialdiari buruzko apirilaren 15eko 49/2014 Foru Dekretuaren babesean ematen diren laguntzei dagozkienak, eta, horrez gainera, deialdiaren epeak zehazten dira, eta foru dekretu horren alderdi batzuk aldatzen dira.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 56/2015 FORU DEKRETUA, apirilaren 14koa. Honen bidez, 1993ko urtarrilaren 19ko 2/1993 Foru Dekretua, Bizkaiko Basoen Batzordearen osaketa, eskumenak eta funtzionamendua arautzen dituena.

Ogasun eta Finantza Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuaren oker-zuzenketa. Haren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten da, Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategina garatzen duena.

8966

Departamento de Cultura

8966

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 57/2015, de 14 de abril, por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones destinadas a las entidades que tomen parte en las actividades deportivas de competición y/o en la Actividad de enseñanza Heziki incluidas en el programa de Deporte Escolar en Bizkaia durante la temporada 2014/2015, reguladas por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 97/2014, de 29 de julio.

8983

ORDEN FORAL de la diputada foral de Cultura 1255/2015 de 15 de abril, por la que se resuelven las solicitudes de subvención presentadas al amparo del Decreto Foral 151/2014, de 9 de diciembre, por el que se regula la convocatoria de subvenciones destinadas a las sociedades mercantiles, sociedades cooperativas, personas empresarias individuales y profesionales que realicen planes de promoción del uso del euskera durante el ejercicio 2015 («Boletín Oficial de Bizkaia» número 239, de 15 de diciembre de 2014).

8984

Departamento de Agricultura

8984

DECRETO FORAL de la Diputación Foral 54/2015, de 14 de abril, por el que se señalan las consignaciones presupuestarias para 2015 a las que se imputarán las ayudas que se otorguen al amparo del Decreto Foral 50/2014, de 15 de abril, de bases reguladoras de las subvenciones para el desarrollo de las zonas rurales de Bizkaia, se establecen plazos de convocatoria y se modifican ciertos aspectos de dicho Decreto Foral.

8987

DECRETO FORAL de la Diputación Foral 55/2015, de 14 de abril, por el que se señalan las consignaciones presupuestarias para 2015 a las que se imputarán las ayudas que se otorguen al amparo del Decreto Foral 49/2014, de 15 de abril, de bases reguladoras y convocatoria de ayudas a las Asociaciones de Desarrollo Rural del Territorio Histórico de Bizkaia, se establecen plazos de convocatoria y se modifican ciertos aspectos de dicho Decreto Foral.

8990

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 56/2015, de 14 de abril, por el que se modifica el Decreto Foral 2/1993, de 19 de enero, por el que regula la composición, competencias y funcionamiento de la Comisión de Montes.

8991

Departamento de Hacienda y Finanzas

8991

Corrección de errores del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 169/2014, de 16 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia, de desarrollo del Texto Refundido de la Norma Foral General Presupuestaria.

Herri Lan eta Garraio Saila

Herri Lan eta Garraioen foru diputatuaren 1742/2015 FORU AGINDUA, apirilaren 15ekoa. Foru agindu horren bidez, gidarien lanbide-gaitasunerako ziurtagiria lortzeko gaitzat jo diren hautagaien behin betiko zerrenda onartzen da.

Ingurumen Saila

Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Sailaren iragarkia, Urkiolako Parke Naturalaren eta Kontserbazio Bereziko Eremuaren (KBE) Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Planari eta Kudeatzeko Jarraibide eta Jarduketei buruzko hasierako dokumentua jendaurrean jartzeko epe bat irekitzen duena (ES2130009).

Gizarte Ekintza Saila

Foru Aginduen jakinarazpenari dagokion iragarkia maiatzaren 7ko 23920/2014.

Foru Aginduen jakinarazpenari dagokion iragarkia martxoaren 13ko 13989/2014.

Ekonomia Sustatzeko Saila

Ekonomia Sustatzeko foru diputatuaren 10780/2014 FORU AGINDUA, urriaren 6koa, Lankidetzari Buruzko Programa 2014 ebazten duena. 2014ko otsailaren 11ko 8 Foru Dekretua (2014ko otsailaren 25ko38. zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean).

8993

8993

Departamento Obras Públicas y Transportes

ORDEN FORAL de la diputada foral de Obras Públicas y Transportes 1742/2015, de 15 de abril, por la que se aprueba la relación definitiva de aspirantes declarados aptos para la obtención del certificado de aptitud profesional de conductores.

8996

8996

Departamento de Medio Ambiente

Anuncio del Departamento de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se abre un periodo de información pública del documento inicial del Plan Rector de Uso y Gestión y de las Directrices y Actuaciones de Gestión para el Parque Natural y para la Zona Especial de Conservación (ZEC) Urkiola ES2130009.

8997

8997

Departamento de Acción Social

Anuncio de notificación de Orden Foral 23920/2014 de 7 de mayo.

8997

Anuncio de notificación de Orden Foral 13989/2014 de 13 de marzo.

8997

8997

Departamento de Promoción Económica

ORDEN FORAL del diputado foral de Promoción Económica 10780/2014 de 6 de octubre, por la que se resuelve el Programa de Cooperación, 2014. Decreto Foral 8 de 11 de febrero. («Boletín Oficial de Bizkaia» número 38 de 25 de febrero).

II. Atala / Sección II**Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Administrazioa / Administración Local del Territorio Histórico de Bizkaia****Bilboko Udala**

9000

Ayuntamiento de Bilbao**Gorlizko Udala**

9018

Ayuntamiento de Gorliz**Gernika-Lumoko Udala**

9018

Ayuntamiento de Gernika-Lumo**Derioko Udala**

9020

Ayuntamiento de Derio**Basauriko Udala**

9021

Ayuntamiento de Basauri**Portugaleteko Udala**

9029

Ayuntamiento de Portugalete**Amorebieta-Etxanoko Udala**

9030

Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano**Muxikako Udala**

9030

Ayuntamiento de Muxika**Durango Udala**

9031

Ayuntamiento de Durango**Sestaoko Udala**

9031

Ayuntamiento de Sestao**Lemoizko Udala**

9032

Ayuntamiento de Lemoiz**Leioako Udala**

9034

Ayuntamiento de Leioa**Getxoko Udala**

9036

Ayuntamiento de Getxo**Gautegiz Arteagako Udala**

9037

Ayuntamiento de Gautegiz Arteaga**Barakaldoko Udala**

9037

Ayuntamiento de Barakaldo**Zierbenako Udala**

9039

Ayuntamiento de Zierbena**Santurtziko Udala**

9040

Ayuntamiento de Santurtzi**Atxondoko Udala**

9046

Ayuntamiento de Atxondo**Areatzako Udala**

9046

Ayuntamiento de Areatza**Etxebarriko Udala**

9047

Ayuntamiento de Etxebarri**Ondarroako Udala**

9056

Ayuntamiento de Ondarroa**Mallabiko Udala**

9058

Ayuntamiento de Mallabia**Bakioko Udala**

9064

Ayuntamiento de Bakio**Busturiko Udala**

9066

Ayuntamiento de Busturia**Zamudioko Udala**

9068

Ayuntamiento de Zamudio**Igorreko Udala**

9069

Ayuntamiento de Igorre**Sopuertako Udala**

9070

Ayuntamiento de Sopuerta**Elorriko Udala**

9070

Ayuntamiento de Elorrio**Gueñesko Udala**

9070

Ayuntamiento de Gueñes**Zeberio Udala**

9071

Ayuntamiento de Zeberio**Berrizko Udala**

9071

Ayuntamiento de Berriz**Zeanuriko Udala**

9072

Ayuntamiento de Zeanuri**Sondikako Udala**

9072

Ayuntamiento de Sondika**Bilbao-Bizkaiko Ur-Partzuergoa**

9073

Consorcio de Aguas de Bilbao-Bizkaia**Jesusen Bihotzaren Udal Egoitza (Getxo)**

9075

Residencia Municipal Sagrado Corazón de Jesús (Getxo)**Deportiva Municipal de Portugalete, S.A. (Demuporsa)**

9075

Deportiva Municipal de Portugalete, S.A. (Demuporsa)

IV. Atala / Sección IV

Estatuko Administrazio Orokorra / Administración General del Estado

Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioa

9114

Ministerio de Agricultura, Alimentación y Medio Ambiente

V. Atala / Sección V

Justizi Administrazioa / Administración de Justicia

9114 Tribunal Superior de Justicia del País Vasco

9114 Tribunal Superior de Justicia de Navarra

9115 Juzgado de lo Social número 2 de Bilbao (Bizkaia)

9115 Juzgado de lo Social número 4 de Bilbao (Bizkaia)

9117 Juzgado de lo Social número 5 de Bilbao (Bizkaia)

9121 Juzgado de lo Social número 6 de Bilbao (Bizkaia)

9121 Juzgado de lo Social número 7 de Bilbao (Bizkaia)

9122 Juzgado de lo Social número 8 de Bilbao (Bizkaia)

9124 Juzgado de lo Social número 9 de Bilbao (Bizkaia)

9125 Juzgado de lo Social número 10 de Bilbao (Bizkaia)

9127 Juzgado de lo Social número 31 de Madrid

9127 Juzgado de Instrucción número 7 de Bilbao (Bizkaia)

9127 Juzgado de Instrucción número 8 de Bilbao (Bizkaia)

9128 Juzgado de Primera Instancia e Instrucción número 3 de Ronda (Málaga)

VII. Atala / Sección VII

Beste zenbait / Varios

9128 Ilustre Colegio de Procuradores de Bizkaia

I. Atala / Sección I

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa
Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia**Foru Aldundia / Diputación Foral****Kultura Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 57/2015 FORU DEKRETUA, apirilaren 14koa, 2014-2015 denboraldian Bizkaiko Eskola Kirola programaren barruan sartuta dauden lehiatzeko kirol jardueretan eta/edo Heziki hezkuntza-jardueran parte hartzen duten erakundeentzako diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dituen. Jarduera horiek Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 29ko 97/2014 Foru Dekretuak arautu ditu.

Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeek eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeek Arteko Harremanei Buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak 7.b.6 artikuluan dio Kondaira-Lurraldeei dagokiela Bateango Erakundeek emandako honako gaien artean osabideratu eta egipideratzea kirolaren sustapena, eta eskola-kirolentzako eta guztien kirolarentzako egitarauak.

Euskadiko kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 5. artikulua dio, halaber, lurralde historikoetako foru-organoei dagokiela Euskal Autonomia Erkidegoko eskola-kirolaren arloko arauak garatzea eta gauzatzea.

Bizkaiko Foru Aldundiak, eskoletako umeen artean kirola sustatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 29ko 97/2014 Foru Dekretuaren bidez (abuztuaren 8ko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 150. zk.), Bizkaiko Eskola Kirola programaren 2014-2015 denboraldirako arautegia ezarri du.

Honako foru dekretu honen bidez diruz lagundu gura da aipatutako eskola kiroleko programa horietan entitate desberdinek izan duten parte hartzea.

Laguntzak emateko salbuespenezko hainbanaketa sistemaren araubidea erabiliko da, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.1 artikuluan jasota dagoena, hain zuzen.

Horrela, foru dekretu honetan ezarritako betekizunak betetzen dituzten eskabideei puntuak ezarri eta baloratu ondoren, aurrekontu muga proiektu eskatzaile bakoitzari ezartzen zaion Foru Dekretuaren 5. artikuluko puntu eta zenbatekoen artean hainbanatuko da.

Hainbanaketa sistema erabiltzeko arrazoia da deialdi hau eskoletan, guraso elkarteetara eta eurei lotutako entitateetara eta kirol elkarteetara eta/edo klubei zuzenduta dagoela, bai eta Bizkaiko Lurralde Historikoko udalei eta/edo udalek kirolaren arloan dituzten udal organismo autonomoetara edo udal fundazio publikoetara ere. Aurreko horiek guztiek, foru dekretu honek ezartzen dituen baldintza batzuk aurretiaz beteta dituztela eta burutu dituzten jarduerak konparatu gabe, diru-laguntza jasoko dute eskarian aurkeztutako datuetan oinarrituta 5. artikuluko ebaluazio-irizpideen arabera. Artikulu horretako azken lerroak oinarriak ezartzen dira hainbanaketa egiteko, eta hainbanaketaren bidez, diru-laguntza bakoitzaren zenbatekoa kalkulatu da.

Azaldutakoa dela bide, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeek Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17., 39 k) eta 64.3 artikulua, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautu zuen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua

Departamento de Cultura

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 57/2015, de 14 de abril, por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones destinadas a las entidades que tomen parte en las actividades deportivas de competición y/o en la Actividad de enseñanza Heziki incluidas en el programa de Deporte Escolar en Bizkaia durante la temporada 2014/2015, reguladas por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 97/2014, de 29 de julio.

El artículo 7.b.6 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, establece que corresponde a los Territorios Históricos el desarrollo y la ejecución de las normas emanadas de las Instituciones Comunes en materia de fomento del deporte, programas de deporte escolar y deporte para todos.

El artículo 5 de la Ley 14/1998, de 11 de junio, del deporte del País Vasco señala asimismo que corresponde a los órganos forales de los territorios históricos el desarrollo normativo y la ejecución de la normativa de la Comunidad Autónoma en materia de deporte escolar.

La Diputación Foral de Bizkaia, con el fin de fomentar la práctica deportiva entre la población escolar, ha establecido mediante el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 97/2014, de 29 de julio («Boletín Oficial de Bizkaia» número 150, de 8 de agosto) la normativa reguladora del programa de Deporte Escolar de Bizkaia durante la temporada 2014/2015.

Mediante el presente Decreto Foral se pretende apoyar económicamente la participación de las distintas entidades en el citado programa de deporte escolar.

El régimen de concesión de las subvenciones se rige por el excepcional sistema de prorrateo, previsto en el artículo 20.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

De este modo, una vez puntuadas y valoradas las solicitudes que cumplan con los requisitos previstos en el presente Decreto Foral, el límite presupuestario disponible se prorrateará entre los puntos e importes reflejados en el artículo 5 del Decreto Foral, adjudicados a cada proyecto solicitante.

La utilización del sistema de prorrateo se debe a que esta convocatoria está dirigida a los Centros Escolares, Asociaciones de Padres y Madres o entidades vinculadas a ellos, Agrupaciones Deportivas y/o Clubes, así como Ayuntamientos del Territorio Histórico de Bizkaia y/o sus respectivos Organismos Autónomos Municipales o Fundaciones Públicas Municipales de deportes que, cumpliendo de antemano una serie de requisitos exigidos por el presente Decreto Foral, y sin darse una comparación entre las distintas actividades deportivas que han realizado, percibirán las subvenciones en base a los datos aportados en la solicitud, según los criterios de valoración del artículo 5, que en su último párrafo establece las bases para realizar el prorrateo mediante el cual se calculará el importe de cada subvención.

En virtud de lo expuesto, vistos los artículos 17, 39 k) y 64.3 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las sub-

eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak onartu zuen Diru-laguntzen Erregelamendua kontuan hartuta, eta Kulturako Foru Sailaren egitura organikoari buruzko araudia onetsi zuen abenduaren 3ko 172/2013 Foru Dekretuak emandako ahalmenak aintzat hartuta, Kultura Saileko foru diputatu andreak proposaturik, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2015eko apirilaren 14ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe,

XEDATZEN DA:

1. artikulua. — Xedea

1. Foru dekretu honen helburua da 2014-2015 denboraldian Bizkaiko Eskola Kirola programaren barruan sartuta dauden lehiatzeke kirol jardueretan eta/edo Heziki hezkuntza-jardueran parte hartzen duten erakundeentzako foru diru-laguntzen deialdiaren oinarriak eta arauak onestea. Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 29ko 97/2014 Foru Dekretuaren babespean egin dira kirol jarduerok.

2. Foru Dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geratuko da txirrindularitzako modalitatea.

3. Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29. artikulua ezartzen duen «diru-laguntza jaso dezakeen gastua»-ren kontzeptua betez emango dira diru-laguntza hauek. Ondorio horietarako, diru-laguntza jaso dezaketen gastuak izango dira batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, behar-beharrezkoak direnak eta ezarritako epearen barruan egiten diren gastuak. Diruz lagundutako gastuen kostua ezin izango da inoiz izan merkatuko balioa baino handiagoa.

4. Foru dekretu honen helburua da eskatzaileen ekintzak lagundu eta osatzea; ez dira inoiz finantzatzeko jarduera egiteagatik sortutako gastu guztiak.

2. artikulua. — Onuradunak

1. Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan jasotako egoeretako batean egon ez eta honako hauek betetzen dituztenak izan daitezke onuradunak:

a) Bizkaiko Lurralde Historikoan irakaskuntza ofizialak ematen dituzten eskolak eta euren guraso elkarteak edo horiei lotutako nortasun juridikoko entitateak eta Bizkaiko Lurralde Historikoan egoitza soziala duten kirol elkarteak edo/eta kirol klubak, bai eta Bizkaiko Lurralde Historikoko udalak eta/edo udalek kirolaren arloan dituzten udal organismo autonomoak edo udal fundazio publikoak ere, baldin eta 2014-2015 denboraldian Bizkaian honako jarduera hauetakoren batean parte hartu badute:

Lehiaketa-jarduerak:

1. Kirol anitza eta udal mailako kirol anitza.
2. Aerobika.
3. Xakea.
4. Atletismoa.
5. Saskibaloia.
6. Saskibaloia 3x3.
7. 5eko eskubaloia.
8. 7ko eskubaloia.
9. Hondartzako eskubaloia.
10. Beisbola.
11. Krosa.
12. Herri kirolak.
13. Kirol eskalada.
14. Esgrima.
15. Alpetar eskia.
16. Frontenisa.

venciones otorgadas por la Administración Foral y el Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, y habida cuenta de las facultades atribuidas por el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento Foral de Cultura aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 172/2013, de 3 de diciembre, a propuesta de la Ilma. Sra. diputada titular del Departamento de Cultura, previa deliberación y aprobación de esta Diputación Foral, en reunión de 14 de abril de 2015,

SE DISPONE:

Artículo 1. — Objeto

1. Constituye el objeto del presente Decreto Foral la aprobación de las bases y la convocatoria de subvenciones forales destinadas a aquellas entidades que hayan tomado parte en las Actividades Deportivas de Competición y/o en la Actividad de enseñanza Heziki en Bizkaia durante la temporada 2014/2015, al amparo de lo dispuesto en el Decreto Foral de la Diputación foral de Bizkaia 97/2014, de 29 de julio.

2. Quedará excluida del ámbito de aplicación del presente Decreto Foral la modalidad de Ciclismo.

3. La concesión de la presente subvención se realiza atendiendo al concepto de «Gastos subvencionables» que establece el artículo 29 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral. A estos efectos tienen la consideración de gastos subvencionables los que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido. En ningún caso el coste de adquisición de los bienes subvencionables podrá ser superior al valor de mercado.

4. La finalidad del presente Decreto Foral será la de apoyar y completar la acción de las solicitantes, nunca la de financiar en su totalidad los gastos derivados de la ejecución de la actividad.

Artículo 2. — Beneficiarias

1. Podrán ser beneficiarias de estas subvenciones, aquellas entidades que no estando incurso en las causas del artículo 12 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, cumplan los siguientes requisitos:

a) Los Centros Escolares que impartan enseñanzas oficiales en el Territorio Histórico de Bizkaia o sus respectivas Asociaciones de Padres y Madres o entidades con personalidad jurídica vinculadas a ellos/as, Agrupaciones Deportivas y/o Clubes deportivos con sede social en el Territorio Histórico de Bizkaia, así como Ayuntamientos del Territorio Histórico de Bizkaia y/o sus respectivos Organismos Autónomos Municipales o Fundaciones Públicas Municipales de deportes que hayan tomado parte en las siguientes actividades en Bizkaia durante la temporada 2014/2015:

Actividades de Competición:

1. Multideporte y Multideporte Municipal.
2. Aerobic.
3. Ajedrez.
4. Atletismo.
5. Baloncesto.
6. Baloncesto 3x3.
7. Balonmano 5.
8. Balonmano 7.
9. Balonmano playa.
10. Béisbol.
11. Cross.
12. Deporte rural.
13. Escalada deportiva.
14. Esgrima.
15. Esquí alpino.
16. Frontenis.

17. Areto-futbola.
 18. 7ko futbola.
 19. 11ko futbola.
 20. Gimnasia artistikoa.
 21. Gimnasia erritmikoa.
 22. Gimnasia jauzi-oholean.
 23. Hockeya.
 24. Patinen gaineko hockeya.
 25. Ilara bakarreko patinen gaineko hockeya.
 26. Judoa.
 27. Karatea.
 28. Borroka.
 29. Igeriketa.
 30. Igeriketa sinkronizatua.
 31. Orientazioa.
 32. Padela.
 33. Patinaje artistikoa.
 34. Patinaje lasterketak.
 35. Zesta-puntako pilota.
 36. Eskuzko pilota.
 37. Palako pilota.
 38. Trinketeko esku-pilota.
 39. Kanoa-kayak.
 40. Arrauna.
 41. Errugbia.
 42. Skateboarda.
 43. Surfa.
 44. Taekwondoa.
 45. Tenisa.
 46. Mahai-tenisa.
 47. Arku-tiroa.
 48. Triatlóia.
 49. Txikibox.
 50. Bela.
 51. Hondartzako boleibola.
 52. Boleibola.
 53. Waterpoloa.
- Hezkuntza-jarduerak.

— Heziki:

b) Bizkaiko Lurralde Historikoan irakaskuntza ofizialak ematen dituzten eskolak edo euren guraso elkarteak edo horiei lotutako nortasun juridikoko entitateak eta Bizkaiko Lurralde Historikoan egoitza soziala duten kirol elkarteak edo/eta klubak ere, baldin eta Araba edo Gipuzkoako eskolako kiroleko jardueretan parte hartzen badute eta Bizkaiko Foru Aldundian kirol arloan eskumena duen Kultura Saileko Zuzendaritza Nagusiaren baimena badute. Onuradunak izango dira, baldin eta eskola kirolaren programetan barne hartutako lehiaketako jardueraren batean parte hartu badute, hurrenez hurren, Araba edo Gipuzkoako foru aldundietan.

2. Ez dira onuradunak:

a) Honako hauetan ezarritakoa betetzen ez duten erakundeak: ekainaren 11ko Euskal Autonomia Elkarte Kirolari buruzko 14/1998 Legea, Eusko Jaurlaritzaren eskola kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretua, eta aplika daitezkeen gainontzeak. Ez betetzeen artean, administrazio baimen adierazirik gabe Eskola Kirola programetan jasota ez dauden lehiaketak egitea dago, edo horietarako arauz ezarritako eremu geografikoa ez errespetatzea.

b) Parte hartu ez duten entitateak edo izena emandako jardueratik alde egiten dutenak.

17. Fútbol sala.
18. Fútbol 7.
19. Fútbol 11.
20. Gimnasia Artística.
21. Gimnasia Rítmica.
22. Gimnasia Trampolín.
23. Hockey.
24. Hockey Patines.
25. Hockey Patines en Línea.
26. Judo.
27. Karate.
28. Lucha.
29. Natación.
30. Natación Sincronizada.
31. Orientación.
32. Padel.
33. Patinaje Artístico.
34. Patinaje Carreras.
35. Pelota Cesta.
36. Pelota Mano.
37. Pelota Pala.
38. Pelota Trinkete.
39. Piragüismo.
40. Remo.
41. Rugby.
42. Skateboard.
43. Surf.
44. Taekwondo.
45. Tenis.
46. Tenis Mesa.
47. Tiro con arco.
48. Triatlón.
49. Txikibox.
50. Vela.
51. Voley Playa.
52. Voleibol.
53. Waterpolo.

Actividades de Enseñanza:

— Heziki:

b) Los Centros Escolares que impartan enseñanzas oficiales en el Territorio Histórico de Bizkaia, o sus respectivas Asociaciones de Padres y Madres o entidades con personalidad jurídica vinculadas a ellos/as, así como las Agrupaciones Deportivas y/o Clubes con sede social en el Territorio Histórico de Bizkaia que hayan tomado parte en las actividades de Deporte Escolar de los Territorios Históricos de Araba o Gipuzkoa y cuenten con autorización de la Dirección General competente en materia de Deportes del Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia, serán beneficiarios/as siempre y cuando hayan tomado parte en alguna de las actividades de Competición incluidas en los programas de Deporte Escolar de las Diputaciones Forales de Araba o Gipuzkoa, respectivamente.

2. No tendrán la consideración de beneficiarias:

a) Las entidades que incumplan lo establecido en la Ley 14/1998, de 11 de junio, del Deporte del País Vasco, el Decreto del Gobierno Vasco 125/2008, de 1 de julio, sobre Deporte Escolar, y las demás normas que sean de aplicación. Entre otros incumplimientos están los de desarrollar, sin autorización administrativa expresa, competiciones no contempladas en los programas de Deporte Escolar, o no respetar el ámbito geográfico reglamentariamente establecido para las mismas.

b) Las entidades que no hayan tomado parte o se hayan retirado de la actividad para la que se hayan inscrito.

c) Ekainaren 11ko Euskal Autonomia Elkarteak Kirolari buruzko 14/1998 Legean jasotako faltaren bat egiteagatik, zehapenen bat jaso duten entitateak.

d) Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saileko Kirolen eta Gazteriaren Zuzendaritza Nagusiak baimendu ez dituen eta foru dekretu honetan ezarritakoaren kontra egiten duten kirol jarduerak antolatzen dituzten entitateak, edo jarduera horietan parte hartu dutenak.

e) Artikulu honen 1. zenbakiko jardueretako batean ere parte hartu ez duten entitateak.

3. Foru dekretu honen xede diren jardueretan parte hartzeagatik onuradun izan litezkeen entitateek ez dute diru-laguntzarik jasoko laguntzak jasotzeki baztertuta geratu diren kirolari edo taldeengatik; baztertuta geratu behar izan dira, hain zuzen ere, Bizkaiko Eskola Kirola Programan jasota ez dauden egoeretarako baimena emateko prozedura arautzen duen foru aginduaren arabera.

4. Sexua dela-eta inor baztertzeagatik administrazio-zehapenik edo zehapen penalik jaso duten pertsona fisiko nahiz juridikoek ezin izango dute dekretu honetan araututako deialdian parte hartu, dagokien zehapena indarrean dagoen bitartean; halaber, Emakumeen eta Gizoneen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Euskal Legea dela-eta debeku hori ezarri zaienak ere dekretu honek arautzen duen deialditi kanpo geldituko dira.

3. artikulua.— *Diru-laguntzak emateko araubidea*

Laguntzak emateko araubidea ezohikoa den hainbanaketa sistema izango da; Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.1 aurrez ikusita dago sistema hori.

Horrela, foru dekretu honetan ezarritako betekizunak betetzen dituzten eskabideei puntuak ezarri eta baloratu ondoren, aurrekontu muga proiektu eskatzaile bakoitzari ezartzen zaion Foru Dekretuaren 5. artikuluko puntu eta zenbatekoen artean hainbanatuko da.

4. artikulua.— *Eskabideak eta epeak*

1. Diru-laguntzarako eskariak eredu ofizialean (E2-I. eranskina, zeina www.bizkaia.net/kulturadirulaguntzak webgunean dagoen eskuragarri) aurkeztu behar dira Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saileko Eskola Kirolaren Atalean (Bilboko Errekalde zumarkalea, 30, 1, astelehenetik, ostiralera, 8:30etik 13:30era); edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako moduan.

2. Eskariak aurkezteko epea 2015eko maiatzaren 11tik 29ra artekoa da, biak barne.

3. Dokumentazio orokor hau (E3-II. eranskina) erantsi beharko zaio eskabideari:

a) Banku-helbideratzearen fitxa (IV-E5. eranskina betez), alta edo aldaketaren bat bada, bakarrik.

b) Erakunde eskatzailearen IFZren fotokopia.

4. Agiri espezifikoa hauek (E3-II. eranskina) erantsi beharko zaizkio eskabideari:

a) Desgaitasuna izateagatik diru-laguntza gehiago jaso dezaketen teknikariak edo parte-hartzaileak badira: %33ko desgaitasuna edo hortik gorakoa duela egiaztatzen duen agiria, Migrazio eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak edo erakunde baliokideak emandakoa.

b) Arabako edo Gipuzkoako lurralde historikoetako eskolar-teko kirol jardueretan parte hartu eta Bizkaiko Foru Aldundian kirol arloan eskumena duen Zuzendaritza Nagusiaren baimena daukaten entitateek soilik, honako hauek ere aurkeztu behar dituzte:

— Parte hartu duen jardueren egutegiaren kopia.

— Izena Internet bidez eman bada, jarduera egin den lurralde historikoko aldundiak emandako frogagiria.

c) Las entidades a quienes se imponga sanción por cometer alguna falta de las contempladas en la Ley 14/1998, de 11 de junio, del Deporte del País Vasco.

d) Las entidades que hayan organizado o hayan participado en actividades deportivas no autorizadas por la Dirección General de Deporte y Juventud del Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia que contravengan lo establecido en el presente Decreto Foral.

e) Las entidades que no hayan tomado parte en ninguna de las actividades relacionadas en el apartado 1 del presente artículo.

3. Las entidades, aunque sean potencialmente beneficiarias por tomar parte en las actividades deportivas objeto del presente Decreto foral, en ningún caso recibirán subvención con respecto a los y las deportistas y/o equipos que hayan sido excluidos de ayuda de acuerdo con la Orden Foral por la que se regula el procedimiento de concesión de autorizaciones para cualquier situación no incluida en el Programa de Deporte Escolar de Bizkaia.

4. Quedarán excluidas de la convocatoria regulada por el presente Decreto, durante el período que establezca la correspondiente sanción, aquellas personas físicas o jurídicas sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo y las sancionadas con esta prohibición en virtud de la Ley vasca 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Artículo 3.— *Régimen de concesión*

El régimen de concesión de las subvenciones se rige por el excepcional sistema de prorrateo, previsto en el artículo 20.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

De este modo, una vez puntuadas y valoradas las solicitudes que cumplan con los requisitos previstos en el presente Decreto Foral, el límite presupuestario disponible se prorrateará entre los puntos e importes reflejados en el artículo 5 del Decreto Foral, adjudicados a cada proyecto solicitante.

Artículo 4.— *Solicitudes y plazos*

1. Las solicitudes de subvención se deberán presentar en el modelo oficial que se adjunta como Anexo I-E2 (accesible a través de la web www.bizkaia.net/kulturadirulaguntzak), en la Sección de Deporte Escolar del Servicio de Deportes del Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia sita en Bilbao, alameda Rekalde, 30, 1.º (de lunes a viernes, de 8:30h. a 13:30h.), o en la forma que determina el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2. El plazo para la presentación de solicitudes será del 11 al 29 de mayo de 2015, ambos inclusive.

3. Deberá adjuntarse la siguiente documentación de índole general (Anexo II-E3):

a) Ficha de domiciliación bancaria, únicamente en los casos de alta o modificación (rellenando el Anexo IV-E5).

b) Fotocopia del NIF de la entidad solicitante.

4. Deberá adjuntarse la siguiente documentación específica (Anexo II-E3):

a) En el caso de técnicos, técnicas y participantes que pudieran acogerse al incremento de subvención por discapacidad: certificado acreditativo de tener reconocida la condición de persona con discapacidad de grado igual o superior al 33% expedido por el Instituto de Migraciones y Servicios Sociales, Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia o equivalente.

b) Solo en el caso de aquellas entidades que hayan tomado parte en las actividades de deporte escolar de los territorios de Araba o Gipuzkoa y cuenten con autorización de la Dirección General competente en materia de deportes de la Diputación Foral de Bizkaia deberán además presentar la siguiente documentación:

— Copia de los calendarios de actividades en las que ha tomado parte.

— Si se ha realizado la inscripción a través de Internet, justificante expedido por la Diputación Foral del Territorio Histórico donde se haya realizado la actividad.

c) Kudeaketa integralaren hobekuntzarekin lotutako beste erakunde ofizial batzuek emandako ziurtagiriak eta haien edukia (soilik ez badira 3K Diploma oinarrikoa, gorena edo/eta bikaintasunarekiko konpromisoarenak).

5. Eskatzaileek eskolako kirolaren programako lehiaketa-jardueretan izena emateko epea —Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 29ko 97/2014 Foru Dekretuan ezarritakoa— amaitu ondoren lortu badute titulua, diru-laguntzaren baloraziorako aurkeztu ahal izango dute titulu hori, edo www.bizkaia.net/kirolak webgunearen bitartez. Horretarako epea bukatuko da, hain zuzen ere, diru-laguntzak eskatzeko foru dekretu honen 4. artikuluan ezarritako epea bukatzen denean. Bitarteko informatikorik ez duen pertsona orok Kirol Etxean (Martín Barua Picaza kalea, 27, Bilbo) horretarako dauden ordenagailuak erabil ditzake titulazioa bidaltzeko.

6. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo foru dekretu honetan eskatutako agiriak erakunde interesdunari errekerimendua egingo zaio, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko. Era berean, jakinaraziko zaio ezen hala egiten ez badu eskaeran atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskaera artxibatu egingo dela.

7. Beharrezkotzat jo izanez gero, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saileko Kirol Zerbitzuak aurkeztutako eskabideak ebazteko egoitzat jotzen dituen agiri osagarri guztiak eskatu ahal izango dizkie eskatzaileei. Pertsona eta/edo erakunde eskatzaileak errekerimendua jaso baina ezarri zaion epearen barruan aurkeztu ez baditu eskatu zaizkion agiriak, eskabidean atzera egin duela ulertuko da, eta eskabide hori artxibatu egingo da, aurretik ebazpena eman eta gero.

5. artikulua.— Ebaluazio-irizpideak

Diru-laguntzak entitate eskatzaileen artean banatzeko, irizpide hauei jarraituko zaie:

1. Parte-hartzea

1.1. Taldeko modalitateetan parte hartzea:

Parte hartzeagatik, gehienez, hamabost euro (15 euro) emango dira taldean inskribatutako jokalariko. Zenbateko hori %15 gehituko da kasu hauetan:

a) Emakumeak badira.

b) %33ko desgaitasuna edo hortik gorakoa dutela egiaztatzen duen agiri dute pertsonak badira; agiri hori Migrazio eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak edo erakunde baliokideak emandakoa izan behar da.

c) Herri kiroletan parte hartzen duten pertsonak badira.

Puntuazioa gehitzeko ehunekoak metatu egingo dira aurreko a), b) eta c) letretako baldintzetako bat baino gehiago betetzen dituzten pertsonen kasuan, eta, gehienez ere, %45 gehitu ahal izango da puntuazioa.

1.2. Banakako kirol modalitateetan parte-hartzea:

Parte hartzeagatik, gehienez ere hamabost euroko (15 euro) diru-laguntza emango da parte-hartzaileko. Zenbateko hori %15 gehituko da kasu hauetan:

a) Emakumeak badira.

b) %33ko desgaitasuna edo hortik gorakoa dutela egiaztatzen duen agiri dute pertsonak badira; agiri hori Migrazio eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak edo erakunde baliokideak emandakoa izan behar da.

c) Arraunean parte hartzen duten pertsonak badira.

Puntuazioa gehitzeko aurreko a) eta b) letretan jasotzen diren ehunekoak hasierako puntuazioari metatuko zaizkio.

c) Certificados emitidos por organismos oficiales relacionados con la mejora de la gestión integral y contenido de dicho certificado (sólo aquellos que no sean Diploma 3K básico, superior y/o de compromiso con la excelencia).

5. En el caso de las personas que hayan obtenido la titulación una vez expirado el plazo de inscripción en las actividades de competición del programa de deporte escolar, de acuerdo con el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 97/2014, de 29 de julio, podrán remitir dicha titulación a efectos de valoración a través de la web www.bizkaia.net/kirolak. El plazo límite para ello será el establecido para las solicitudes de subvención en el artículo 4 del presente Decreto Foral. Toda aquella persona que no disponga de medios informáticos podrá remitir su titulación mediante los ordenadores dispuestos a tal efecto en Kirol Etxea (Martín Barua Picaza, 27, de Bilbao).

6. Si las solicitudes no se formalizaran completamente o faltara alguno de los documentos exigidos por el presente Decreto Foral, se requerirá a las personas y/o entidades interesadas, para que en el plazo de diez (10) días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se la tendrá por desistida de su petición, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

7. En aquellos casos en que se considere necesario, el Servicio de Deportes del Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia podrá requerir a las solicitantes cuanta documentación complementaria estime oportuna, para proceder a la resolución de las solicitudes formalizadas. Si la persona y/o entidad peticionaria requerida no presentare la documentación en el plazo que se establezca, se la tendrá por desistida de su solicitud, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

Artículo 5.— Criterios de valoración

La distribución de subvenciones entre las entidades solicitantes se realizará atendiendo a los criterios siguientes:

1. Participación

1.1. Participación en modalidades de equipo:

La cuantía de la subvención por participación será de hasta un máximo de quince euros (15 euros) por cada jugador/a inscrito/a en el equipo. Dicha cuantía se verá incrementada en un 15% en los siguientes supuestos:

a) Cuando sean mujeres.

b) Cuando se trate de personas que posean el certificado acreditativo de tener reconocida la condición de persona con discapacidad de grado igual o superior al 33% expedido por el Instituto de Migraciones y Servicios Sociales, Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia o equivalente.

c) Cuando se trate de personas que participen en la modalidad de Herri Kirolak.

Los porcentajes de incremento serán acumulables en el caso de personas que reúnan más de una de las condiciones que reflejan los apartados a), b) y c) anteriores, siendo el porcentaje máximo de incremento el 45%.

1.2. Participación en modalidades deportivas individuales:

La cuantía de la subvención por participación, será de hasta un máximo de quince euros (15 euros) por participante. Dicha cuantía se verá incrementada en un 15% en cada uno de los siguientes casos:

a) Cuando sean mujeres.

b) Cuando se trate de personas que posean el certificado acreditativo de tener reconocida la condición de persona con discapacidad de grado igual o superior al 33% expedido por el Instituto de Migraciones y Servicios Sociales, Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia o equivalente.

c) Cuando se trate de personas que participen en la modalidad de Remo.

Los porcentajes de incremento que se reflejan en los anteriores apartados a) y b) serán acumulables.

Diru-laguntza jasotzeko eskubidea duten parte-hartzaileen kopurua zehazteko, jardunaldi bakoitzeko parte-hartzaileen kopurua (jardunaldien aktan arabera) zatituko da jokaturako jardunaldiengatik.

1.3. Hezikin parte hartzea:

Parte hartzeagatik, gehienez ere hamabost euroko (15 euro) diru-laguntza emango da izena eman duen parte-hartzaileko. Zenbateko hori %15 gehituko da kasu hauetan:

a) Emakumeak badira.

b) %33ko desgaitasuna edo hortik gorakoa dutela egiaztatzen duen agiria duten pertsonak badira; agiri hori Migrazio eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak edo erakunde baliokideak emandakoa izan behar da.

Puntuazioa gehitzeko ehunekoak metatu egingo dira aurreko a) eta b) letretako baldintzetako bat baino gehiago betetzen dituzten pertsonen kasuan, eta, gehienez ere, %30 gehitu ahal izango da puntuazioa.

1.4. Kirolean hasia:

Kirol anitzean, gehienez ere bostehun euroko (500 euro) diru-laguntza emango da izena eman duen talde bakoitzeko.

Hezikin, gehienez ere bostehun euroko (500 euro) diru-laguntza emango da 15 parte-hartzaile bakoitzeko. 15 parte-hartzaile baino gehiago izanez gero, gehienez ere bostehun euro (500 euro) emango dira beste 15 parte-hartzaile izateagatik, edo, bestela, 15 parte-hartzailetik gora izateari dagokion zatikia emango da.

Hezikin eta Kirol anitzean, bietan, taldea duten erakundeek, gainera, bostehun euro (500 euro) jasoko dituzte, gehienez.

1.5. Arbitrajeak (futboleko modalitatean baino ez):

Arbitratutako partidako, gehienez, hamar euroko (10 euro) diru-laguntza emango da, lurralde-federazioak arbitroa aukeratu duen partidetan izan ezik. Dirua etxeko taldeari ordainduko zaio.

2. Kudeaketa aurreratua

2.1. Langile teknikoen prestakuntza:

Diru-laguntzarako eskubidea duen pertsonal teknikoa izateko, kirol arduradun edo entrenatzaile gisa inskribatuta egon behar da.

Puntu bakoitzeko, gehienez, berrogei euroko (40 euro) diru-laguntza emango da.

Pertsonal teknikoa prestatzeko diru-laguntzaren zenbatekoa honako baremo honen arabera emango da:

2.1.1. Entitateko kirol arduradunaren balorazioa:

El número de participantes con derecho a subvención será el resultado obtenido de la suma de los participantes de cada jornada según actas de las mismas, dividido por el número de jornadas celebradas.

1.3. Participación en Heziki:

La cuantía de la subvención por participación será de hasta un máximo de quince euros (15 euros) por participante inscrito. Dicha cuantía se verá incrementada en un 15% en los siguientes supuestos:

a) Cuando sean mujeres.

b) Cuando se trate de personas que posean el certificado acreditativo de tener reconocida la condición de persona con discapacidad de grado igual o superior al 33% expedido por el Instituto de Migraciones y Servicios Sociales, Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia o equivalente.

Los porcentajes de incremento serán acumulables en el caso de personas que reúnan más de una de las condiciones que reflejan los apartados a) y b) anteriores, siendo el porcentaje máximo de incremento el 30%.

1.4. Iniciación al Deporte:

En la modalidad de Multideporte, la cuantía de la subvención será de hasta un máximo de quinientos euros (500 euros) por equipo inscrito.

En la modalidad de Heziki, la cuantía de la subvención será de hasta un máximo de quinientos euros (500 euros) por cada 15 participantes. En el caso de que se superen los 15 participantes, se repartirá hasta un máximo de quinientos euros (500 euros) por cada 15 participantes más o fracción.

Las entidades que tengan equipo tanto en Heziki como en Multideporte recibirán, además, hasta un máximo de quinientos euros (500 euros).

1.5. Arbitrajes (sólo en la modalidad de fútbol):

La cuantía de la subvención por arbitraje será de hasta un máximo de diez (10 euros) euros por partido arbitrado, excepto aquellos partidos en los cuáles sea la Federación Territorial la que se encargue de su asignación. El importe será abonado al equipo anfitrión.

2. Gestión avanzada

2.1. Formación del personal técnico:

Se considerará personal técnico con derecho a subvención, aquél que figure inscrito como Responsable deportivo y/o Entrenador/a.

Por cada punto obtenido se concederá hasta un máximo de cuarenta euros (40 euros) de subvención.

La cuantía de la subvención por la formación de personal técnico se concederá en base al siguiente baremo:

2.1.1. Valoración Responsable Deportivo de la entidad:

TITULAZIO ARLOAK / ÁREAS DE TITULACIÓN

Puntuak Puntos	Kirol titulazioa T. Deportiva	Titulazio akademikoa T. académica	Beste batzuk Otras titulaciones
19		Gorputz-Hezkuntza liz. edo g./ Jarduera fisikoaren eta kirolaren Zientzietako liz. edo g. L. o G. en Educación física / L. o G. en Ciencias de la Actividad Física y el Deporte	
11		Gorputz-hezkuntzako Magisteritza edo Gorputz-hezkuntzako Magisteritzan g. Magisterio en Educación Física o G. en Magisterio en Educación Física Natur ingurunean kirol jarduera fisikoak bideratzeko goimailako zikloa Ciclo de grado superior de animación de actividades físicas y deportivas Goi Kirol Teknikaria Técnico deportivo superior en...	

Puntuak Puntos	Kirol titulazioa T. Deportiva	Titulazio akademikoa T. académica	Beste batzuk Otras titulaciones
7	Entrenatzaile nazionala Entrenador/a nacional III. Maila / Nivel III	Magisteritza edo Magisteritzan g. Magisterio o G. en Magisterio Natur ingurunean kirol jarduera fisikoak bideratzeko erdi mailako zikloa Ciclo de grado medio conducción de actividades físicas y deportivas en el medio natural	
3	Herrialdeko entrenatzailea Entrenador/a regional II. Maila / Nivel II	(Kirol Teknikaria / Técnico deportivo en...)	Astaldiko hezkuntza jardueren zuzendaria Director/a de Act. Educativas en el tiempo libre

Aurreko taulari dagokionez, tituluen puntuazioa ez da meta-tuko, hau da, puntu gehien dituen titulua baloratuko da, hori kirol arloko titulua, akademikoa edo bestelakoa den kontuan hartu gabe.

Con referencia al anterior cuadro, la puntuación por titulación no será en ningún caso acumulativa, valorándose única y exclusivamente aquella titulación a la que más puntos correspondan, independientemente de si corresponde a una titulación deportiva, académica, o de otro tipo.

2.1.2. Entrenatzaileen balorazioa:

2.1.2. Valoración Entrenadoras y Entrenadores.

TITULAZIO ARLOAK / ÁREAS DE TITULACIÓN

Puntuak Puntos	Kirol titulazioa T. Deportiva	Titulazio akademikoa T. académica	Beste batzuk Otras titulaciones
9	Entrenatzaile nazionala Entrenador/a nacional III. Maila / Nivel III	Gorputz-Hezkuntzan liz. edo g./ Jarduera fisikoaren eta kirolaren Zientzietako liz. edo g. L. o G. en Educación física / L. o G. en Ciencias de la Actividad Física y el Deporte Goi Kirol Teknikaria Técnico deportivo superior en...	
6	Herrialdeko entrenatzailea Entrenador/a regional II. Maila / Nivel II	Magisteritza, G.H. edo Magisteritzan G.H. g. Magisterio E.F. o G. en Magisterio E.F. Natur ingurunean kirol jarduera fisikoak bideratzeko goi mailako zikloa Ciclo de grado superior en animación de actividades físicas y deportivas Kirol Teknikaria / Técnico deportivo en...	
4	I. Maila / Nivel I	Magisteritza edo Magisteritzan g. Magisterio G. en Magisterio Natur ingurunean kirol jarduera fisikoak bideratzeko erdi mailako zikloa Ciclo de grado medio conducción de actividades físicas y deportivas en el medio natural	Astaldiko hezkuntza jardueren zuzendaria Director/a de Act. Educativas en el tiempo libre
3	Begiralea Monitor/a Bloke orokorra, I. Maila Bloque común, Nivel I	Pedagogia edo Pedagogian g. Pedagogía o G. en Pedagogía Psikologia edo Psikologian g. Psicología o G. en Psicología Gizarte-hezitzailea / Educador/a social	L.Hko Gizarte eta kultur animazioa Animazio soziokulturaleko goi mailako zikloa Ciclo de grado superior de Animación Sociocultural F.P. II Animación sociocultural
2	Eskola kiroleko begiralea Monitor/a de Deporte Escolar		
1		Beste diplomaturak/ Otras diplomaturas Beste lizentziaturak/ Otras licenciaturas Beste gradu batzuk/ Otros Grados	Astaldiko hezkuntza jardueren begiralea Monitor/a de Act. Educativas en el tiempo libre

Aurreko taulari dagokionez, tituluen puntuazioa ez da meta-tuko, hau da, puntu gehien dituen titulua baloratuko da, hori kirol arloko titulua, akademikoa edo bestelakoa den kontuan hartu gabe.

